

Analytical approach to *in vitro* studies of the echinocandin Caspofungin

Beatriz Uribe Oñate

July 2020

université de BORDEAUX

Kozuzendaritzapean aurkeztutako tesia

Euskal herriko unibertsitatearen eta Bordeleko unibertsitatearen

eskutik ***DOKTORE*** *maila lortzeko*

Auzitegiko analisiko doktorego eskola
Zientzia kimikoen doktorego eskola
Espezialitatea Kimika Analitikoa

Beatriz URIBE-ren eskutik

Kaspofungina ekinokandinaren *in vitro* azterlanen ikuspegi analitikoa

Approche analytique pour des études in vitro d'une échinochandine, la caspofungine

Tesi zuzendariak:
ALONSO Rosa M., Euskal Herriko Unibertsitatea
GAUDIN Karen, Université de Bordeaux

Aurkeztuta 2020ko Uztailaren 24an

Epaimahaikideak*:*

ETXEBERRIA, Nestor - Euskal Herriko Univertsitatea	***Mahai-burua***
RICHARD, Tristan - Université de Bordeaux	***Epaimahaikidea***
VENTURA, Rosa - Universidad Pompeau-Fabra	***Berrikuslea***
MARCHIONI, Eric - Université de Strasbourg	***Berrikuslea***
CATALÁN, Maria de las Mercedes - Universidad Complutense	***Epaimahaikidea***

Thèse en cotutelle présentée pour obtenir de grade de

DOCTEUR de

L'Université de Bordeaux et L'Université du Pays Basque

École doctorale des Sciences Chimiques (UB)
École doctorale de l' examen médico-légal (UPV/EHU)
Spécialité Chimie Analytique

Par Beatriz URIBE

Approche analytique pour des études *in vitro* d'une échinochandine, la caspofungine

Kaspofungina ekinokandinaren in vitro azterlanen ikuspegi analitikoa

Directeurs de these:
GAUDIN Karen, Université de Bordeaux
ALONSO Rosa M., Euskal Herriko Unibertsitatea

Soutenue le 24 de Juillet du 2020

Membres du jury:

M. ETXEBERRIA, Nestor - Euskal Herriko Univertsitatea	***President***
M. RICHARD, Tristan - Université de Bordeaux	***Examinateur***
Mme. VENTURA, Rosa - Universidad Pompeau-Fabra	***Rapporteuse***
M. MARCHIONI, Eric - Université de Strasbourg	***Rapporteur***
Mme. CATALÁN, Maria de las Mercedes - Universidad Complutense	***Examinatrice***

The most exciting phrase to hear in science, the one that heralds new discoveries, is not "Eureka!" but "That's funny…"

Isaac Asimov

Acknowledgements

First of all, I want to thank you the UPV/EHU for the contract for training research staff at the UPV/EHU under a system of joint supervision between the UPV/EHU and the universities that make up IDEX Bordeaux and the “grant applications for study sojourns in foreign universities by trainee researchers from the university of the Basque country engaged in a jointly supervised doctoral thesis” for the financial support that allowed me to do my doctoral research.

I would like to thank to the ISVV and the SGIker for giving me the chance and the support to do some experiments. I want to thank the analytical chemistry department of the FCT/ZTF from UPV/EHU and the analytical chemistry department of the faculty of pharmacy of UB for embracing me during these years.

Y ahora viene lo personal.

Rosa, a ti agradecerte la oportunidad de ser de tu grupo de investigación hace ya 6 años. Recuerdo perfectamente la primera vez que fui a pedirte ayuda y consejo, al despacho de decanato, hecha un mar de nervios porque no sabía si iba a ser admitida en el Master. Fue la primera de las muchas conversaciones, profesionales y personales, que hemos tenido durante estos años. Me diste la oportunidad de entrar en la vida de un grupo de personas muy especiales, personas que has ido eligiendo durante los años y han ido creando esta familia de científicos variopintos, y no muy equilibrados. Gracias por la oportunidad y el tiempo dedicado, pero sobre todo, por la confianza y el apoyo constante.

Dear **Karen**, thank you for answering positively the first time Rosa wrote to you. Thank you for accepting to start a new project with these strange Basque people that were wishing to collaborate. Thank you for hosting me during one year and a half. We have spent so many hours planning experiments and trying to understand what was going on with our loved molecule. You encouraged me to try my best, to go

deeper and to try to have a general view of everything we were doing. Summarizing, you made me scientist. You made me feel at home since the first week, and you know that when I came back to Bilbao I desired to have some pending experiments to have the chance of visiting you again. Thank you for this personal and professional incredible opportunity. I hope we will meet again in the future.

Oskar, berriz ere, zuri eskerrak emateko momentua heldu da eta zer esan ez dakit. Ikerkuntza mundua zer den erakutsi didan pertsona zara. Zientzian jartzen duzun pasioa bide honetatik jarraitzera bultzatu nuen eta zuri esker hemen nago, doktore izateko azken pausuan. Gauzak nola egin behar diren erakutsi eta nire ikuspuntu zientifikoa hezi duzu urte hauetan zehar. Baina, hori baino askoz gehiago zarela badakizu. Nire bizitzan betirako egotea espero dut. Being the Grand Master of the Jedi, you will always show me the pathway and remember me the lots of mortadela I still need to eat. Mila esker denagatik.

Querida **Mariluz**, la bondad personificada y el corazón de esta familia. Quiero agradecerte todo tu cariño y tiempo, no sabré como devolverte el apoyo recibido durante estos años. Nuestros mediodías, algún que otro día de gym, viajes en coche y las noches en vuestra casa, todas las conversaciones y las sonrisas. Un sin fin de cosas que echaré muchísimo de menos.

Sr. Dr. Bartolomé, ante todo, gracias por no aceptarme como TFM. Esa negativa hizo que hoy este donde estoy, y me encanta. Gracias por tu txispa diaria, tu alegría y tus comentarios. Gracias también, por los consejos que me has dado en mi vida investigadora. Y tranquilo, seguiré dejándote en casa sano y salvo siempre.

Oihane, compi! Cuanto tiempo juntas en el laboratorio! Hace tanto de los primeros pinitos con DBS y ahora… míranos, doctoras (bueno, yo casi). Muchisimas gracias por toda las risas, los cotilleos y la ayuda de estos años. Ha sido genial conocerte y espero que esto sea por muchos años.

Laura, que paciencia has tenido conmigo, ¿eh? Cuanta caña te he metido algunas veces… Pero todo era con buena intención, espero que lo sepas. Mucha suerte en los meses que te quedan. Si necesitas cualquier cosa, ya sabes donde estoy. A **Omaira** y a **Ruth**, deciros que me habría gustado poder llegar a conoceros mas, ha sido una pena.

Ane, espero dut batera pasa ditugun egunetan zeozer ikasi izatea. Gutxienez, esperimentuak denboraz eta pausuz-pausu planifikatzea… hori fijo baietz! Ikerkuntza bidetik jarraitu, polita da eta.

Cher **Boubakar**, nos problèmes de langue ont fait du temps ensemble un grand mélange d'anglais et de français. Nous avons passé beaucoup de temps à lutter contre les problèmes du modèle *in vitro* et, enfin, nous l'avons fait fonctionner correctement. Dommage que la caspofungine soit si compliquée. Merci pour la patience et les explications. Ce fut un plaisir de travailler avec vous.

I want to thank to **ChemBioPharm team** for the time we spent together, the experience in France was incredible! Thank you for your advices, smiles and always positive mood. It has been a pleasure to meet you.

A las chicas de al lado, **Irantzu eta Maitane**, mila esker. Orain dela 11 urte, 2019an, lehenengo sutea amatatu genuen batera Irantzu. Hortik aurrera, zuen bulegora milaka aldiz joan naiz, ikasle zein doktoregai bezala. Kimika analitikoa zuengatik aukeratu nuen. Mila esker denagatik.

Belén, Iris, María, Jone e Iñaki, ¡que habría sido Burdeos sin vosotros! La verdad, tenía ganas de volver a casa pero ahora lo echo muchísimo de menos. A **maría** una mención especial por su acogida cuando llegué, mila esker.

A mi gente; a mis amigas de siempre, a las de casi siempre, a Xabi, al equipo de la ikas, y a los que lo saben, a todas y todos, muchísimas gracias por ser parte de mi vida. Sois gente increíble.

A mi compañero en la aventura. Diego, tu que me conociste justo cuando iba a empezar este reto, que has sufrido mis idas y venidas geográficas… Muchísimas gracias. Muchísimas gracias por estar ahí y por atreverte a enfrentarte a los cientos, y a veces miles, de kilometros que nos han separado desde el principio. Por soportar mis chapitas cuando las cosas han ido mal o bien (siempre hay motivos para el blablablá) y ayudarme a desconectar siempre que lo he necesitado. Gracias por las cenas-skype que han hecho de las noches solitarias de Burdeos algo especial. No creo que seas consciente de la importancia que has tenido en esta etapa de mi vida. Ahora atrevámonos a comenzar otra juntos, donde sea.

Finalmente, quiero dar las gracias a **mi familia**. Agradecerles a todos y cada uno de ellos por ser parte de esta gran locura que formamos. Gracias por estar ahí.

Dedicarle un momento a **Él**, que me encantaría que viese hasta donde he llegado.

Gracias a **Conchi**, la tia por excelencia. Gracias infinitas por todo. A nivel académico gracias por insistir y ayudarme con mis dudas, enseñarme que la química tenía una parte divertida y que merecía la pena darle una oportunidad. Fuiste la persona que me inspiro para elegirla y no podría estar mas agradecida.

A **Isa** & **Juanjo**, por todas las conversaciones, el paseo entre lágrimas aquel día en Oteiza y por el apoyo constante. Gracias por el chute de oxigeno que me habéis dado siempre que lo he necesitado. Gracias y mil gracias.

Aita, Ama y Ana. Con vosotros no me voy a alargar. Os debo mi empeño y mi constancia, pero sobre todo mi alegría y mis ganas de ser y hacer. Os debo lo que soy y nunca podré agradecéroslo lo suficiente. Os quiero muchísimo.

Table of contents

Laburpena

Infekzio fungiko inbaditzaileek, mundu mailan, garrantzia hartu dute erakusten duten erikortasun- eta hilkortasun-tasa altuak direla eta. Infekzio hauen erantzule nagusiak *Aspergillus, Cryptococcus* eta *Candida* onddo generoak dira. Horien artean, kandidak espezialisten arreta lortu du populazio talde batzuetan erakusten duen hilkortasun maila altuagatik, non, batzuetan % 40-ra heldu daitekeen.

Egun, kandidiasi inbaditzailearen tratamendurako lau farmako familia erabili ohi dira: azolak, polienoak, pirimidinaren analogoak eta ekinokandinak. Urte askoz, kandidiasiaren tratamendua azolen familiako farmakoekin aurrera eraman da batez ere. Baina onddoek farmakoekiko garatzen ari diren erresistentzia mekanismoak direla eta, terapien aldaketa bultzatuta ikusi da. Testuinguru horretan, berriki garatutako ekinokandinen familia bilakatu da espezialisten lehen aukera kandidiasiaren tratamendurako hainbat populazio multzotan.

Ekinokandinen akzio mekanismoa onddoen horma zelularraren osagai nagusi baten inhibizioan oinarritzen da, β-(1,3)-D-glukanoarena hain zuzen ere. Ikuspuntu kimiko batetik, ekinokandina familia osatzen duten molekulak hainbat onddoen hartziduratik lortutako lipopeptido semisintetikoak dira. Gaur egun, familia horretan hiru molekula onartuta daude giza terapian erabiltzeko: kaspofungina, mikafungina eta anidulafungina. Momentu honetan, laugarren bat garapen klinikoaren azken faseetan aurkitzen da: rezafungina.

Ekinokandina molekulekiko onddo erresistentzia baxu mantentzen da kandida espezie gehienetan. Zoritxarrez, azken hamarkadan *C. glabrata* espeziearen erresistentziak ekinokandinekiko gora egin du, batez ere kaspofunginarekiko (CSFrekiko). Horrela izanik, nahitaezkoa da in vitro ikerketak garatzea onddoek farmakoekiko duten erresistentzia aztertu ahal izateko. Guzti hau kontuan hartuta, lan honek *C. glabrataren* erresistentziaren azterlanak aurrera eramateko beharrezkoak diren ikuspuntu analitikoak aurkezten ditu.

2. Kapituluan, ekinokandina familiako molekulen kuantifikazioa matrize biologikoetan egiteko argitaratutako metodo analitikoen berrikuspen bibliografikoa egin zen. Literaturan aurkitutakoaren arabera, gehien erabilitako metodo analitikoa alderantzizko faseko likido kromatografia (LC) da. Farmako horien detekzioa egiteko, masa espektrometria (MS) eta fluoreszentzia (FLD) detektagailuak erabili dira, eta kasu batzuetan, ultramore ikuskorreko absortzio espektroskopia detektagailua. Ikertzaile batzuek aurkeztu dutenen arabera, ekinokandinekin lan egitean, lagin tratamendu batzuk aurrera eramatean gerta daitekeen analito galera da aurkitutako zailtasun handiena, adibidez, fase solidoko erauzketa (SPE) egitean.

Deskribatutako informazioa kontuan harturik, bereizmen handiko likido kromatografia metodo bat garatu egin zen fluoreszentziako detekzioa erabiliz (HPLC-FLD). Metodo honetan, column-switching prozedura bat aurrera eraman zen lagina zutabe kromatografikora heldu baino lehen (**3. Kapitulua**). *In vitro* ikerketetan erabiltzen diren kultibo zelularrak konposatu askotariko matrize konplexuak dira eta prozedura horrek laginaren garbiketa egitea ahalbidetzen du analisi kromatografikoa egin baino lehen. Garatutako metodologia analitikoa CSF farmakoaren kuantifikazioa RPMI-1640 matrizean egiteko metodo eraginkorra, azkarra eta sentikorra dela frogatu egin zen. Alde batetik, column-switching teknikak, lagina zuzenean injektatzeko aukera ematen du laginaren aurretratamendurik egin gabe, literaturan deskribatutako analito galera murriztuz. Bestetik, bolumen txikiekin lan egitea ahalbidetzen du, *in vitro* ikerketetan aplikatu ahal izateko beharrezkoa dena. Metodoa balidatu egin zen elikagai eta medikamentuen administrazioaren (FDA) irizpideak jarraituz, hurrengo parametroekiko: selektibitatea, carryover, kontzentrazio tarte lineala, zehaztasuna eta doitasuna. Metodoa egoki aplikatu egin zen CSF kantitatearen determinazioa egiteko *C. glabrataren* 24 h-ko hazkundearen ikerketa zinetikoan.

4. kapituluan *C. glabrataren* erresistentziaren ikerketa aurrera eramaten saiatu egin zen. Hori helburua izanik, bi konpartimentutako in vitro eredu farmakozinetiko/farmakodinamiko (PK/PD) bat (SIMULI-PHARM 1 deitua) erabili egin zen plasman aurkitzen den CSFren profil zinetikoa simulatzeko. Esperimentazio hori burutzean CSF kantitatearen galera nabarmena ikusi zen. Hori horrela izanik, beste farmako batzuen ikerketetan aurretiaz ikertzaile batzuen eskutik aurrera eramandako prozedura bat saiatu egin zen, analitoaren adsortzioa sisteman zehar ekiditzeko. Bertan, esperimentua burutu baino lehen, PK/PD sistema analitoarekin asetzen da adsorbatu daitekeen kantitate guztia adsorbatu daiten. Modu horretan, ondoren esperimentua burutzean adsortzioa eragozten da. Asetze prozedura burutu arren analito galera ekiditzea ezinezkoa izan zen. Hori dela eta, C. glabrataren CSFrekiko erresistentziaren ikerketa, SIMULI-PHARM 1 *in vitro* PK/PD ereduaren laguntzaz, aurrera eramatea ez zen posiblea izan.

4. kapituluan lortutako emaitzetan oinarrituz eta aurretiaz bibliografian aurkitutako peptidoen materialekiko adsortzioa kontuan hartuta, ikusitako analito galeraren azalpenaren inguruan ikertzea erabaki zen, ondoren PK/PD metodoa modu egokian garatu ahal izateko. Horretarako, eman ahal ziren bi prozesuak plazaratu ziren: degradazio eta adsortzio fenomenoak hain zuzen ere.

Lehenengo eta behin molekularen degradazioaren ikerketa egin zen, **5. Kapituluan** deskribatuta dagoena. Bertan erresonantzia magnetiko nuklearra (RMN), HPLC-FLD eta HPLC-MS teknikak erabili egin ziren CSF molekularen degradazio produktuak identifikatzeko helburuarekin. Analitoaren degradazioa bultzatzeko baldintza azido, basiko eta oxidatzaile bortitzak erabili ziren. RMN eta HPLC-FLD teknikekin degradazio produktu bat ikusi egin zen baldintza azidoetan aurrera eramandako degradazioan. RMN eta HPLC-(Q)-TOF-MS (ESI+ ionizazioarekin) teknikak erabili arren, konposatuaren egitura kimikoa guztiz argitzea ezinezkoa izan zen. Hala ere, kapitulu honetan ondorio nagusi bat ateratzea lortu zen: lortutako emaitzei erreparatuz, degradazioa analito galeraren erantzule nagusia ez zen.

Hori horrela zelarik, CSFren adsortzio fenomenoaren ikerketa aurrera eraman zen (**6. Kapitulua**). CSFren adsortzioa zenbait laborategiko materialetan aztertu egin zen. Gainera, disoluzioaren pH balioa eta disolbatzaile organikoaren adizioak eduki ahal zuen eragina ikertu egin zen. Horretarako pH balio azido eta basikoa ikertu egin ziren. Disolbatzaile organikoen artean, azetonitriloa eta metanolaren eragina aztertzea erabaki zen. Baldintza horiekin jokatuz adsortzioa ekiditu edo gutxienez minimizatzeko aukerarik zegoen ebaluatu egin zen. Laginak berriki prestatuta eta 24 h ondoren (ingurune tenperaturan) analizatu egin ziren. Ikertutako laborategiko materialen artean ezberdintasun esanguratsuak aurkitu egin ziren, baita, plastiko mota berdinen artean ere. Disoluzio urtsuetan adsortzioa ekiditzeko baldintza egokiena pH azidoa zela ondorioztatu egin zen. Disolbatzaile organikoen gehipena, ere, adsortzioa saihesteko eraginkorra zela ikusi zen.

Azkenengoz, adsortzioa ekiditzeko gai zen materialaren tratamendu bat proposatu eta ebaluatu egin zen. Tratamendu hori aurretiaz bibliografian deskribatutako prozedura batean oinarritzen da, farmako batzuen adsortzio ez-espezifikoa saihesteko erabilia izan dena. Hiru erreaktibo ezberdin frogatu egin ziren bial kromatografikoetan eta 96-mikroputzuetako plaketan ematen den adsortzioa ekiditzeko erakusten zuten gaitasuna ebaluatzeko. Ikertutakoen artean N-(2-aminoetil)-3-aminopropiltrimetoxisilanoa ikusi zen eraginkorrena zela. Erreaktibo horrek adsortzioaren zinetika moteltzeko gai zela aurkitu zen, CSFren determinazio kuantitatiboa ahalbidetuz. Dena den, denbora pasa ahala CSF materialean adsorbatzen zela ikusi zen, beraz, tratamendua guztiz eraginkorra ez zela ikusi zen.

Laburbiltzeko, tesi honek CSFrekin *in vitro* baldintzetan (giza gorputzaren baldintzetan: pH 7 eta disoluzio urtsuan) lan egitearen zailtasunak aurkezten ditu, aurkitutako adsortzioko fenomenoa dela eta. Ikerketa honek mikrobiologiako eta terapia klinikoetan lortutako emaitzak ebaluatzeko ikuspegi berria eskaintzen du. Ez hori bakarrik, erresistentziak zehazteko eta drogak administratzeko erabiltzen diren metodologien fidagarritasuna ebaluatzeko ikuspuntu berri bat aurkezten du.

Resumé

Les infections fongiques invasives sont devenues une préoccupation mondiale en raison de la morbidité et de la mortalité observées. Les principaux responsables de ces infections sont les genres *Aspergillus, Cryptococcus et Candida*. Cependant, *Candida* a attiré l'attention des spécialistes en raison de la mortalité observée pour certains groupes de population comme les personnes immunodéprimées, pouvant atteindre 40%.

Les traitements pharmacologiques de la candidose invasive reposent sur quatre familles de médicaments antifongiques : les azolés, les polyènes, les analogues de pyrimidine et les échinocandines (EC). L'augmentation de la résistance aux antifongiques, tels que la famille des azolés, a donné lieu au développement de nouveaux traitements. Dans ce contexte, les EC sont apparues comme une alternative prometteuse pour les thérapies antifongiques et sont devenues la thérapie de première intention pour la candidose invasive dans différentes populations de patients.

Le mécanisme d'action des EC est basé sur l'inhibition de la synthèse du β- (1,3) -D-glucane, une molécule essentielle de la paroi cellulaire mycocètes. Du point de vue chimique, les molécules composant la famille des EC sont des lipopeptides semi-synthétiques issus de la fermentation de différentes levures. Trois molécules de cette famille ont été approuvées pour leur usage thérapeutique : la caspofungine, la micafungine et l'anidulafungine, et une quatrième est en cours de développement, la rezafungine.

La résistance aux échinocandines reste faible dans la plupart des espèces de *Candida*. Malheureusement, au cours de la dernière décennie, la résistance des espèces de *C. glabrata* aux EC a augmenté, et en particulier à la caspofungine (CSF). Dans ce contexte, ce travail présente de nouvelles approches analytiques pour étudier la résistance des souches de *C. glabrata* à la CSF.

Premièrement, une revue de la littérature sur les méthodes analytiques développées pour la quantification des EC dans des matrices biologiques, a été soigneusement effectuée et constitue le **chapitre 2**. Elles utilisent la chromatographie liquide haute performance en phase inverse (RP-HPLC). Pour la détection, en général la spectrométrie de masse (MS) et la fluorescence (FLD) sont utilisées, dans certains cas, un détection UV-Vis. La littérature mentionne qu'une attention toute particulière doit être suivie lors de l'analyse des EC en raison d'une perte de concentration de l'analyte pendant les étapes de traitement d'échantillons comme l'extraction en phase solide (SPE).

Grâce à cette revue, une méthode par commutation de colonnes utilisant la RP-HPLC couplée à une détection par fluorescence, a été développée (**chapitre 3**). Elle a été validée en termes de sélectivité, d'effet mémoire, de linéarité, d'exactitude et de précision selon le guide de validation de la Food and Drug Administration (FDA) pour la bioanalyse. Cette méthodologie analytique s'est avérée être efficace, rapide et sensible pour la quantification de la CSF dans des milieux de culture cellulaire RPMI-1640 pour des études *in vitro*. Cette approche offre la possibilité d'une injection directe de l'échantillon sans traitement préalable (évitant toute perte d'analyte due à des manipulations), et permet de travailler avec des volumes réduits d'échantillon, un avantage pour son utilisation lors d'études *in vitro*. Elle a été appliquée avec succès pour la détermination de la CSF lors d'une cinétique de 24h en présence de *C. glabrata*.

Dans le **chapitre 4**, une tentative d'étude de la résistance de *C. glabrata* à la CSF a été effectuée. Dans ce but, un modèle *in vitro* pharmacocinétique / pharmacodynamique (PK/PD) à deux compartiments, appelé SIMULI-PHARM 1, a été utilisé pour simuler le profil cinétique de la CSF dans le plasma. Au cours de cette expérimentation, une perte importante de l'analyte a été observée. Même avec un essai de saturation du système par la CSF (une procédure déjà testée avec succès par certains auteurs vis à vis d'autres molécules), la perte d'analyte s'est toujours

produite. Par conséquent, l'étude de la résistance de *C. glabrata* à l'aide du modèle *in vitro* PK/PD n'a pas pu être réalisée.

Sur la base des résultats obtenus et la connaissance du comportement des peptides décrit dans la littérature, une étude tenant compte à la fois de la dégradation et de l'adsorption de la CSF a permis d'expliquer ce phénomène.

L'étude de dégradation de la molécule a été réalisée au **chapitre 5** grâce à la Résonance magnétique nucléaire (RMN), et l'HPLC-FLD ou HPLC-MS. Des conditions de stress, acides, alcalines, oxydantes et de température, ont été utilisées pour forcer l'analyte à se dégrader. Un produit de dégradation a été observé en RMN, HPLC-FLD ou HPLC- (Q) -TOF-MS par mode d'ionisation positive. Cependant son élucidation structurale n'a pas été obtenue. En revanche, cette étude a montré que la CSF n'est pas une molécule qui se dégrade rapidement et donc la dégradation ne peut pas être l'unique responsable de la diminution de la concentration de CSF.

Par conséquent, le phénomène d'adsorption de la CSF a été étudié au **chapitre 6**. Divers matériaux présents au laboratoire ont été testés. Puis l'effet du pH ou l'utilisation de solvants organiques a été étudié dans l'optique d'éviter ou du moins minimiser l'adsorption. Des échantillons analysés dès leur préparation à température ambiante puis étudiés sur 24, ont montré d'énormes différences, notamment pour certains matériaux plastiques. La mise en solution à pH acide s'est avérée la meilleure condition pour éviter l'adsorption de la CSF en solution aqueuse. L'addition de solvants organiques est aussi une approche qui s'est révélée efficace.

En dernier lieu, une procédure déjà établie de modification de surface par un traitement chimique, a été testée sur différents matériaux (verre ou plaque 96 puits). L'efficacité de trois réactifs a été évaluée. Le N- (2-aminoéthyl) -3-aminopropyltriméthoxysilane, a donné des résultats positifs comme le ralentissement de la cinétique d'adsorption de la CSF permettant ainsi d'améliorer

sa quantification. Cependant, le phénomène d'adsorption est ralenti mais pas complètement éliminé.

Pour résumer, les résultats obtenus ont montré les difficultés de travailler avec la CSF lors d'études *in vitro* comme des conditions à pH physiologique en solution aqueuse, en raison principalement du phénomène d'adsorption. Ce travail de recherche offre une nouvelle perspective pour aborder les résultats obtenus dans les domaines microbiologique et thérapeutique, des moyens d'améliorer la fiabilité des méthodologies utilisées pour la détermination de la résistance et l'administration de la CSF.

Summary

Invasive fungal infections have become a concern around the world due to the morbidity and mortality shown. The main responsible of these infections are *Aspergillus, Cryptococcus* and *Candida* genus. However, Candida has gained the attention of specialists due to the mortality shown in some population groups such as immunocompromised, where it can arrive to 40 %.

Pharmacological treatment of Invasive candidiasis includes four antifungal drug families: azoles, polyenes, pyrimidine analogues and echinocandins (ECs). The increase fungal resistance to drugs, such as azole family, gave rise to the development of new antifungals. In this context, ECs emerged as a promising alternative for antifungal therapies and become the first-line therapy for invasive candidiasis in different patient population.

ECs mechanism of action is based on the inhibition of the β-(1,3)-D-glucan synthesis, an essential molecule of the fungi cell wall. From the chemical point of view, the molecules comprising ECs family are semisynthetic lipopeptides derived from the fermentation of different fungi. Three molecules of this family have been approved for their therapeutic use: caspofungin, micafungin and anidulafungin, and a fourth one is under development, rezafungin.

Echinocandin resistance remains low in most candida species. Unfortunately, in the last decade resistance of *C. glabrata* species to ECs has risen, especially to caspofungin (CSF). In this context, this work presents new analytical approaches to study the resistance of *C. glabrata* strains to the antifungal agent CSF.

Firstly, a literature review of the analytical methods developed for ECs quantification in biological matrices was carefully done and it is included in **Chapter 2**. Mainly, the analytical methods developed for the analysis of ECs used reversed phase liquid chromatography (LC). For detection, mass spectrometry (MS) and fluorescence (FLD)

were chosen, and in some cases, ultraviolet-visible absorption spectroscopy. As seen in literature, special care must be taken when analysing ECs due to an analyte concentration loss during sample treatment procedures as solid phase extraction (SPE).

With the information previously described, a column-switching high performance liquid chromatography coupled to fluorescence detection method was developed (**Chapter 3**). Due to the complexity of the matrix used for in vitro studies, column-switching technique allowed sample cleaning before its analytical determination. The method developed was validated in terms of selectivity, carryover, linear concentration range, accuracy and precision according to the criteria established by the Food and Drug Administration (FDA) for validation in bioanalysis. This analytical methodology demonstrated to be an efficient, rapid and sensible technique for the quantification of CSF echinocandin drug in RPMI-1640 cell culture media for *in vitro* studies. Column-switching technique gives the chance of direct injection of the sample with no prior sample treatment (avoiding any analyte loss due to sample manipulation) and permits to work with small sample volumes, which is adapted for *in vitro* studies. The method was successfully applied for the determination of CSF amount during 24h kinetic study of *C. glabrata* cell proliferation.

In **Chapter 4,** a study of the resistance of *C. glabrata* to CSF was tried to perform. For this aim, a two compartment pharmacokinetic/pharmacodynamic (PK/PD) *in vitro* model, called SIMULI-PHARM 1, was used to simulate the kinetic profile of CSF in plasma. During this experimentation, a significant analyte loss was observed. Even though, an attempt of system saturation with CSF was carried out (a procedure already performed by some authors with other drugs), the analyte loss was not possible to avoid. Therefore, the resistance study of *C. glabrata* using the SIMULI-PHARM 1 PK/PD *in vitro* model was not possible to carry out.

Based on the results obtained and the previously reported behaviour of peptides in literature, explanation of this phenomenon was studied taking in consideration both degradation and adsorption processes.

Degradation study of the molecule was carried out in **Chapter 5** by nuclear magnetic resonance (NMR), HPLC-FLD and HPLC-MS techniques. Stress acidic, alkaline and oxidative conditions and temperature were used to force analyte degradation. A degradation product was observed in NMR and HPLC-FLD or MS analysis, but its structural elucidation was not obtained by means of NMR or HPLC-(Q)-TOF-MS in ESI+ ionization mode. Additionally, degradation was found to be slightly responsible for the decrease in CSF concentration compared to the adsorption on the materials.

Consequently, the adsorption phenomenon of CSF was studied in **Chapter 6**. Various laboratory materials were tested to evaluate CSF adsorption in each material. Furthermore, the impact of the pH value of the solution (acidic or alkaline) and the addition of organic modifiers (acetonitrile and methanol) were studied to clarify in which conditions adsorption could be avoided or at least, minimized. Samples were analysed freshly prepared and after 24 h at room temperature. Huge differences were found when using different laboratory materials and dissimilarities within plastic types were noticed. Acidic pH was established as the best condition to avoid adsorption in aqueous solution. The addition of organic solvents was also positively evaluated for adsorption avoidance.

Finally, using a procedure already reported in bibliography for reduction of non-specific adsorption of drugs to plastic containers, different coating agents were tested for material (glass vials and plastic 96-well plates) treatment. The efficacy of the three agents for adsorption avoidance assayed was evaluated. One of the agents, the N-(2-Aminoethyl)-3-aminopropyltrimethoxysilane (AATMS), shown positive results. AATMS use underwent a decrease of the adsorption kinetic of CSF allowing

its reliable quantification. However, the treatment was not sufficient to avoid adsorption completely and the effect of time was perceptible.

To summarize, results obtained shown the difficulties of working with CSF for *in vitro* studies (human body conditions: pH around 7 and in aqueous solution) due to the adsorption phenomenon. This research provides a new perspective to assess the results obtained previously in microbiological and therapeutic fields and, supports researchers to go deeper in the evaluation of the reliability of the methodologies used for resistance determination and drug administration.

Irudien zerrenda / List of figures

CHAPTER 6:

Taulen zerrenda / List of tables

1go Kapitulua

Sarrera

Gizakiaren immunitate sistema ahulduta dagoenean agertzen diren infekzioei, infekzio oportunistak deritze. Urteak pasa ahala, infekzio oportunistetatik infekzio fungikoak nabarmenki hasi dira mundu mailan. Infekzio fungikoak bi taldetan banatu ahal dira: superfizialak eta inbaditzaileak. Superfizialen artean azalekoa, azazkalekoa, ilekoa edo mukosetakoak aurkitzen dira. Infekzio horien kasu kopurua altua da mundu mailan, azaleko, azazkaletako edo ileko infekzio fungikoak bilio bat pertsonak sufritzen dituzte, adibidez. Infekzio fungiko inbaditzaileak (IFIak) sufritzen dituzten pertsonen kopurua txikiagoa izan arren (millioi bat), infekzio hauek garrantzitsuenetarikoak bihurtu egin dira azken urteetan [1-5].

Garatutako edo garatzen ari diren herrialdeetan IFIei bidea errazten dioten zenbait gaixotasun identifikatu egin dira, hots, IHESA, minbizia, neutropenia, tuberkulosia edo asma aurkitu ahal dira horien artean [1,6,7]. Horrela izanik, IFI ezberdinak paziente larri eta immunitate arazoak dituztenen artean ematen dira batez ere [6] eta horiei erlazionatutako erikortasuna eta hilkortasuna dela eta, batzuetan % 50era heltzen dena, mundu osoko espezialistak arduratuta daude [2,4,7].

IFIen erantzule nagusiak *Aspergillus, Cryptococcus* eta *Candida* onddo generoak dira [2,4,5]. *Aspergillus* espezieen hilkortasuna mundu mailan aurretiaz % 30 - 80 zen, eta azken urteetan jaitsi izan arren, oraindik % 20koa da. Era berean, *Cryptococcus* espezieek % 20 - 30ko hilkortasuna erakusten dute osasun sistema on bat duten herrialdetan, baliabide gutxikoetan ordea, hilkortasuna % 50 baino gehiagora heldu daiteke. Azkenengoz, *Candida* spp.-ek % 30 – 40eko hilkortasuna erakusten dute [1,5,7,8]. Izan ere, erakusten duen hilkortasun altua dela eta, kandidiasiak espezialisten arreta lortu du.

1. Kandidiasia

Kandida onddoaren edozein espeziek sortutako infekzio fungikoari kandidiasia deritzo. Oso ezaguna den infekzioa izan arren, azken hamarkadetan eman den kandidiasi nosokomialaren intzidentziaren gorakadak espezialisten aditasuna lortu du. Kandidiasi mota hori ospitalizatuko pazienteetan ematen den kandidiasi inbaditzailea (KIa) da, eta batez ere zainketa intentsiboen unitatean (ZIUn) dauden pazienteen artean ikusi ohi da [1,9-11]. Ospitalizatutako populazioan infekzio mota ohikoenak infekzio intra-abdominalak, kateterren erabilerarekin erlazionatutakoak eta odol-korronteko infekzioak dira. Paziente kritikoetan ordea, barreiatutako kandidiasia da erikortasun eta hilkortasun altueneko kausa, bai immunitate arazoak dutenen eta ez dutenen artean [12].

Kandidiasi inbaditzailearen hilkortasun-tasa orokorrean % 30 – 40koa dela aipatu da aurreko paragrafo batean. Hori orokorrean izanik, ospitalizatutako pertsonetan % 27 - 55 tarteko balioak lortzen dira [13]. Egia esan, 2018. urtean Pappas *et al*.-ek [8] zehaztu egin zuten nola hilkortasun-tasa orokorra txikiagoa izan daitekeen, % 10 - 20 tartekoa. Horrela izanik, hainbat faktorek hilkortasunarekin zuzenki erlazionatuta egon daitezkela aurkeztu zuten. Hala nola, adina (zenbat eta nagusiago, hilkortasun-tasa altuagoa), kandida espeziea, immunoezabatzaileen erabilpena …

Esan beharra dago kandida onddo endogeno bat dela. Beraz, gizakian berez kantitate txikietan bizi den onddoa da eta orokorrean ostalariarentzako ez kaltegarria da. Hala ere, batzuetan, ostalariaren eta patogenoaren arteko elkarrekintzan eman daitekeen aldaketa baten ondorioz, bizitza arriskuan jartzeko gai da onddo populazioaren hazkunde bortitz bat dela medio [4,13]. Gorputzean kantitate txikietan eduki ez ezik, iturri exogenoa ere eduki ahal du kandida infekzioak. Hala nola, aurretiaz aipatutako kateterren erabilerarekin erlazionatutako kasuak adibidez [4,14].

2. Kandida espezie nagusiak

Kandida generoan 60 espezie baino gehiago identifikatu egin dira historian zehar eta multzo horretatik 20 espezie dira gehien isolatzen direnak. Dena den, kandida infekzioen erantzule nagusiak bost dira: *albicans, glabrata, tropicalis, papapsilosis* eta *krusei* espezieak [1,4,15-20].

Munduan zehar kandida espezie nagusien distribuzioa ezberdina da. Herrialde guztietan isolatutako espezie ohikoena *C. albicans* dela aurkitu da, baina beste espezieen maiztasuna aldatzen da herrialde ezberdinetako epidemiologia aztertzean. Ez-*albicans* espezie nagusien (*C. glabrata, C. parapsilosis* eta *C. tropicalis*) distribuzioa azaldu egin zuten Pappas *et al*.-ek [8] 2018. urtean. Aurkeztutako informazioan oinarrituz (**1. Irudia**), orokorrean *C. glabrata* espezie ohikoena dela ikus daiteke baina Brasil eta Japonian *C. parapsilosis* espeziea da nagusiki isolatu egin dena.



1. Irudia: Kandida ez-albicans espezieen distribuzioa (Pappas *et al*.-en irudia [8])

Mundu mailan kandida espezieen distribuzio orokorra desberdina izanik, logikoa da KIaren erantzule diren espezieen distribuzioa ere aldatzea herrialdeetan zehar, **2. Irudian** ikus daitekeen bezala.

Horrela izanik, AEBetan, Australian eta Europan *C. glabrata*-ren kasu kopuruen hazkunde nabarmen bat ikusi da KIen bigarren erantzule nagusia suertatuz [21]. Afrika eta Latinoamerikan espezie distribuzioa apur bat aldatzen da, *C. parapsilosis* izanik gehien isolatutako espeziea *C. albicans*-aren ostean. Asian ordea, hainbat joera identifikatu dira Txina zentrala, Taiwan eta India konparatzean. Alde batetik, Taiwan-en Europan bezala, *C. glabrata-ren* hazkundea nabarmendu egin da [22]. Txinan ostera, *C. tropicalis* aurkitu da KIren *ez-albicans* espezieen arteko ohikoena [23]. Indian aurkitzen da distribuzio ezberdinena, non, *C. tropicalis* gehien isolatutako espeziea den, *C. albicans*-aren gainetik ere [22].



2. Irudia: Kandidiasi inbaditzailearen erantzule diren espezie nagusien distribuzioa hainbat herrialdetan [21-23]

C. *albicans, C. glabrata,* eta *C. parapsilosis* espezieak espezien konplexu kriptikoak direla aurkitu da. Hau da, espezie bakarra izan ordez, multzoak direla. Kriptiko hitzak grekotik datorren *kruptós* hitzean oinarritzen da, zeinek "ezkutatuta" esan nahi du, hain zuzen ere [24]. Konplexu hauek beste espezieetatik ugalketa prozesuari dagokionez isolatuta dauden espezie multzoak dira. Espezie bakar bat bezala hartzen dira askotan haien artean morfologikoki ezberdintzea ezinezkoa delako. Hori lortzeko DNA ikerketa bat erabili beharko litzateke, adibidez [17,24,25].

Orokorrean, infekzioen % 50 *C. albicans* konplexu kriptikoaren ondorio izaten jarraitzen dute [26,27]. Multzo horrek *C. albicans*, *C. dublimiensis* eta *C. africana* espezie kriptikoek osatzen dute. Ikerketa epidemiologiko batean ikusi zen, nola *C. dublimiensis*-ak isolatutako espezieen % 1,5 errepresentatzen zuen eta *C. africana* bulbobaginitisaren erantzule zela [28-33]. *C. albicans* konplexu kriptikoak sistema gastrointestinalean eta genitourinarioan aurkitzen den patogeno ez kaltegarri ohia da, populazioaren % 70ean aurkitu daitekelakoan [19]. Espezie ezberdinen artean multzo hau da infekzio sistemiko eta azalekoen erantzule nagusia.

C. albicans kultibo klinikoetan aurkitzen den espezie nagusia izan arren, *ez-albicans* espezieen kasuek gora egin dute. Modu horretan, *C. glabrata* gehien isolatutako espezieen bigarren postuan aurkitzen da [27,34]. Espezie hori, adin altuko pazienteen hemokultiboetan isolatzen da orokorrean, 65 urte baino gehiagokoetan, *C. tropicalis*-a eta *C. krusei*-arekin batera [33,35]. *C. glabrata* konplexuak, *C. glabrata, C. bracarensis* eta *C. nivarensis* espezie kriptikoz osotuta dago [17,34,36,37]. Konplexu kriptiko hau izango da lan honen ikerketaren helburu, Europan ematen ari den kasuen gorakada dela eta.

3. Kandidiasi inbaditzailearen diagnosia

KIak ez du sintoma karakteristikorik, bere adierazpen klinikoa inflamazio sistemikoa baita. Horrela izanik, sukar txiki batetik shock septiko batera heldu daiteke. Hori dela eta, beste infekzioetatik ezberdintzea zaila da. Kandida gorputzean zehar barreiatu daiteke odola garraiobide erabilita eta infekzioaren larritasuna handitu ahal du (endorkarditisa edo endopalmitisa sortuz, edo, nerbio sistema zentrala kaltetuz) [16].

Gaixotasun honen laborategi diagnosia lagin esteril baten kultiboan oinarritzen da. Lagina odola, likido peritoneala edo likido pleurala izan daiteke. Orokorrean, 2 edo 3 egunez kultibatuz diagnosia egiteko hazkunde egokia lortzen da, hala ere, kultiboaren hazkundea 8 egunetaraino luzatu ahal da. Ondoren, espezieen identifikazioa komertzializatutako sistema ezberdinez egin daiteke [16]. Hala ere, eta urte askoz sail honetan ikertu arren, diagnosi ikerketa gutxi dira eskuragarri eta fidagarriak [27].

Laborategiko ikerketen bidez diagnosia aurrera eramatea zaila dela ikusi denez, klinikoki modu azkar batean lortzea garrantzitsua da. Kontuan hartu behar da, terapiaren eraginkortasuna diagnosiaren abiaduraren menpekoa dela [27]. Espezialistek KIaren diagnosia hurrengoetan oinarritzen dute: alde batetik, sintomak eta laborategiko odol analisiak infekzio batekin egokitzea, eta bestetik, arrisku-faktoreak edukitzea eta espektro zabaleko antibiotikoen eraginik ez ikustea. Baldintza horiek betetzen dituen paziente baten aurrean egotean, nahiz eta onddo espeziaren identifikazioa ez eduki, KIaren diagnosia egin daiteke farmako egokia eman ostean erantzun positiboa ikusten bada [27].

4. Kandidiasiaren tratamendurako farmakoak

Hainbat farmako familia erabili dira kandidiasiaren tratamendurako historian zehar. Farmako familiak onddoen zelularen zein punturi (**3. Irudia**) eta nola erasotzen diotenen arabera sailkatu ahal dira. Horrela izanik, lau talde nagusi daude kandidiasi inbaditzailearen tratamendurako: azolak, polienoak, pirimidinaren analogoak eta ekinokandinak [38,39].



3. Irudia: Antifungiko familia garrantzitsuenen akzio puntuak zelulan

4.1 Azolak

Droga familia honen akzio mekanismoa ez dago argi. Orain arte, zitokromo P450-ren menpe dagoen lanosterol 14α-dimetilasa inhibitzen zutela pentsatzen zen, lotura ez-konpetitibo baten bidez. Zehazki, azolak entzimaren zati ferrikora lotzen zirela uste zen entzimaren substratuaren lotura oztopatuz [40]. Lanosterol 14α-dimetilasak, lanosterolaren 14α-metil taldearen kanporaketa ahalbidetzen du. Pausu hau, ergosterolaren (onddoen mintz zitoplasmatikoaren konposatu nagusia) biosintesirako beharrezkoa da [41-43]. Azken urteetan ordea, farmako hauen mekanismoa inhibizio konpetitibo batean oinarritu ahal dela ikusi da [43]. Hala izanda ere, ondorioa parekoa da. Biak ergosterolaren sintesian eragiten dute eta horrela, zelulen hazkundea eta ugaritzea oztopatzen dute.

Ikuspuntu kimiko batetik farmako hauek bost atomoko eraztun azolikoa dute oinarritzat eta, bertara, albo-kate karbonatu konplexu bat dute lotuta [44]. Azolak bi taldetan banatu ahal dira eraztun azolikoan dauden nitrogeno kopuruaren arabera. Alde batetik, imidazolak aurkitzen dira, eraztunean bi nitrogeno dituztenak. Giza tratamendurako onartutako imidazolak klotrimazola, ekonazola, mikonazola eta ketokonazola dira (**4. Irudia**). Bestetik, eraztunean hiru nitrogeno atomo dituztenak aurkitzen dira, triazolak [41,42]. Talde horretan itrakonazola, posakonazola, flukonazola, borikonazola eta rabukonazola aurkitzen dira (**5. Irudia**).

Iraganean imidazol batzuk tratamendu sistemikorako erabili izan arren, gaur egun erabilera topikoa dute erakutsitako toxizitatea dela eta [42,45]. Horrela izanik, infekzio sistemikoen tratamendurako triazolak erabili ohi dira [41,42]. .



4. Irudia: Imidazol nagusien egitura kimikoak; a) klotrimazola, b) ekonazola, c) mikonazola eta d) ketokonazola



5. Irudia: triazol nagusien egitura kimikoak; a) itrakonazola, b) posakonazola, c) flukonazola, d) borikonazola eta e) rabukonazola

4.2 Polienoak

Farmako hauen akzio mekanismoa ere ergosterolarekin erlazionatuta dago. Kasu honetan, polienoak mintz zelularretan dauden ergosterol molekulei (**2. Irudia**) lotzen dira mintzean poroak sortuz [38,42,46]. Poro horiek oreka ionikoaren galera sortarazten dute mintzaren osotasuna kaltetuz eta, azkenengoz, zelularen heriotza eragiten dute [42].

Polienoak molekula natural organikoak dira eta orokorrean *Streptomyces* bakteriak jariatzen ditu [42]. Droga hauek makrolido izena ere hartzen dute laktona eraztun makrozikliko bat dutelako. Familia honetan aktibitate antifungikoa duten 200 molekulen artean, hiruk bakarrik erabili ahal dira klinikoki besteen toxizitatea altuegia delako [38,42]. Hiru farmako horiek anfoterizina B, nistatina eta natamizina dira (**6. Irudia**).

Infekzio sistemikoak tratatzeko anfoterizina B erabili ohi da, nistatina eta natamizina erabilera topikoa duten bitartean. Konposatu hauek berez aktibitate antifungikoa izan arren, albo-efektu asko dute. Horregatik, anfoterizina B-n oinarritzen diren farmako berriak (lipido formulazioak) garatzen ari dira [42].



6. Irudia: Polieno familiako farmakoen egiturak: a) anfoterizina B, b) nistatina eta c) natamizina

4.3 Pirimidinaren analogoak

Talde honetan 5-fluorozitosina, edo 5-fluzitosina, (5FCa) eta 5-fluorouraziloa (5FUa) aurkitzen dira (**7. Irudia**). Farmako horiek zitosinaren analogoak dira eta haien akzio mekanismoa inhibizio konpetitiboan oinarritzen da, zehazki, zitosinarekin konpetitzen dute RNAren sintesian (zelularen nukleoan, **3. Irudia**). 5FCak onddoen zelula horma pasatzen du, non zitosina deaminasak, farmakologikoki aktiboa den 5FU molekulan bihurtzen duen [38,41]. Ondoren, 5FUa zelularen nukleoan sartzen da eta bertan proteinen sintesia blokeatuz edo DNAren erreplikazioa inhibituz zelularen funtzionamendua oztopatzen du [46].



7. Irudia*:* Pirimidinaren analogoen farmakoen egiturak: a) 5-fluorozitosina eta b) 5-fluorouraziloa

5FCak bioerabilgarritasun handia izan arren, gorputzean azkar absorbatzen da, albo-efektu asko ditu. Orokorrean albo-efektuak arinak dira, baina, noiz behinka, larriak ere eman dira, hepatotoxizitatea garatuz, adibidez [38]. Gainera, onddo zelulak askotan tolerantzia garatzen dute. Horregatik farmako hau, orokorrean, beste antifungiko batzuekin batera erabiltzen da terapia konbinatuetan, adibidez, lehen aipaturiko anfoterizina B polienoarekin. [38,42,44].

4.4 Ekinokandinak

Onddoen infekzioen borrokan garatutako azkenengo farmako familia, ekinokandina familia da. Momentu honetan KIaren aurrean gomendatutako tratamendua ekinokandinen erabilpenean oinarritzen da, paziente neutropeniko eta ez-neutropenikoetan [15,47-49]. Paziente neutropenikoek globulu zurien mota baten (neutrofiloak) kontzentrazio eskasa duten pertsonak dira, horren ondorioz, infekzio larriak garatzeko erraztasuna daukate. Farmako familia honen garrantzia dela eta, hau izango da lan honen helburu.

Ekinokandinen akzio mekanismoaren itua onddoen horma zelularra da, polisakaridoz konposatutako egitura zurruna dena [50]. (1➔3)-β-D-glukanoa, (1➔4)-β-D-glukanoa, (1➔6)-β-D-glukanoa, kitina eta galaktomanana (manoproteina) osatzen dute nagusiki horma zelularra (**8. Irudia**). Ekinokandinak (1➔3)-β-D-glukan sintasara lotzen dira (1➔3)-β-D-glukanoaren sintesia inhibituz. Honen ondorioz, horma zelular anormala sortzen da zeinek, ezinezkoa duen presio osmotikoa jasatea eta, azkenean, zelularen lisia sortarazten duen [44,47,51].



8. Irudia: Horma zelularraren eta mintz zitoplasmatikoaren egiturak

Farmako hauen abantaila bat da efektua aurresateko aukera ematen dutela, terapiaren arrakasta onddoek duten glukano proportzioaren menpekoa izango baita. Horrela, glukano proportzio altua duten onddoetan, *C. albicans* eta *Aspergillus fumigatus* onddoetan adibidez, efektu eraginkorragoa izango dute [47]. Ez hori

bakarrik, kontuan hartuta gizakion zeluletan ez dagoela horma-zelularrik, ekinokandinek, beste antifungikoekin konparatuz, albo-efektuen agerpenaren arrisku gutxiago erakusten dute [42,44,50,51]. Haien toxizitate baxua dela eta, infekzio inbaditzaile eta sistemikoak tratatzeko erabiltzen dira [50].

Droga horiek hainbat onddoen hartziduratik lortzen diren lipopeptido semisintetiko luzeak dira [48]. Familia honetako molekulen egiturak 6 aminoazidoz konposatutako ziklo baten oinarritzen dira (**9. Irudia**). Ziklo horretara lotuta azilo albo-kate karbonatu bat dute, N-lotura baten bidez [50]. Farmakoen arteko ezberdintasun nagusia albo-kate horretan aurkitzen da (**9. Irudia, R1**).



9.Irudia: Ekinokandina farmakoen egituraren oinarria. Molekulen arteko ezberdintasunak R1, R2, R3, R4 eta R5 puntuetan lotutako taldeetan aurkitzen da

1974. urtean ekinokandinen molekula aitzindaria identifikatua izan zen, ekinokandina B [47]. Konposatu horretan oinarriturik garatutako lehenengo konposatuak neumokandina A_0, azuleazina, kriptokandina eta mulundokandina izan ziren eta kandidaren aurrean eraginkorrak ziren. Hala ere, erakusten zuten propietate hemolitikoak direla eta (globulu gorrien desintegrazioa sortaraztea), ez ziren giza tratamendurako proposatu [52]. Ekinokandina B eta neumokandina A_0-ren

deribatizazioa eginez haien ezaugarri hemolitikoak jaistea lortu zen bioaktibitatea mantenduz [52].

Horrela izanik, giza tratamendurako garatzen hasi zen lehenengo ekinokandina zilofungina (LY121019) izan zen [53,54]. Hau *Aspergillus* onddoaren hartziduratik lortutako molekula semi sintetikoa da. Baina, erabiltzen zen farmakoaren disolbatzaileak (polietilenglikolak) sortzen zituen nefrotoxizitate eta azidosi metabolikoak direla eta, garapen klinikoa bigarren fasean bertan behera utzi zuten [53].

Giza tratamendurako onartutako ekinokandina farmako familia, egun, hiru farmakok osatzen dute; kaspofunginak, mikafunginak eta anidulafunginak. Laugarren bat garapen klinikoan aurkitzen da, rezafungina, hain zuzen ere [48].

4.4.1 Kaspofungina (CSF)

L-743 827 edo MK-0991 kodeekin ere ezagutzen den farmakoa, onartutako lehen ekinokandina izan zen, 2001. urtean Elikagaien eta Sendagaien Administrazioagaitik (FDA) [48,55,56]. Farmako hau, *Glarea lozoyensis* onddoak produzitzen duen neumokandina B_0-tik lortzen den konposatu semisintetikoa da [53,57].

Giza tratamenduan 70 mg CSF hartzen dira karga dosi lez ordu batean zehar zaineko administrazioaz baliatuz. Ondoren, 50 mg/egun-eko dosi erregimena jarraitzen da [48].

4.4.2 Mikafungina (MCF)

Mikafungina FK-463 kodearekin ere ezagutzen den farmakoa da [58,59]. 2005. urtean onartutako farmakoa, *Coleoma empetri* onddotik eratorriko neumokandina A_0 bat da [47,60].

